



**LEHIAKETA, KANPO
FINANTZIAZIOAREN BIDEZ
IKERTZAILEEI KONTRATUAK
ESLEITZEKO, MUGAGABEKOAK ZEIN
IRAUPEN JAKINEKOAK**

Deialdia: 2026-abuztuak 06

Ekainaren 1eko 14/2011 Legeak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzakoak, 2019ko idazkeran, honakoa dio xedapen gehigarrietatik hogeita hirugarreneko bigarren atalean: (...) *la posibilidad de realizar contratos indefinidos, de acuerdo con los principios de igualdad, mérito, capacidad, publicidad y concurrencia, para la ejecución de planes y programas públicos de investigación científica y técnica o de innovación financiados mediante consignaciones presupuestarias anuales consecuencia de ingresos externos de carácter finalista, de conformidad con lo previsto en la Ley 47/2003 de 26 de noviembre, General Presupuestaria, vinculados a la duración de los correspondientes planes y programas.*

Ondoren, apirilaren 5eko 8/2022 Errege Lege Dekretuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako lan kontratuetarako premiazko neurriak zehazten dituenak, aldarazi egin zuen mugagabeko kontratuen ezarpen eremua, eta, hain zuzen ere, aipatutako 14/2011 legean 23. artikulua bis (Zientzia eta teknologiako jardueretako kontratuak) sartu zuen, mugagabeko kontratuak egiteko aukera zabaldu zuen eta mota horretako kontratuak egiteko aukera eman zuen ikerketa lerroetako edo zerbitzu teknikoetako jardueratarako.

Bestalde, abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, sektore publikoko erakundeek iraupen jakineko kontratuak egin ahal izango dituzte Suspertze,

**CONCURSO PARA LA ADJUDICACION DE
CONTRATOS DE PERSONAL
INVESTIGADOR DE CARÁCTER
INDEFINIDO Y DE DURACIÓN
DETERMINADA CON FINANCIACION
EXTERNA**

Convocatoria: 06-agosto-2026

La Ley 14/2011, de 1 de junio, de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación establecía, desde 2019, en su Disposición Adicional vigesimotercera, apartado segundo, *la posibilidad de realizar contratos indefinidos, de acuerdo con los principios de igualdad, mérito, capacidad, publicidad y concurrencia, para la ejecución de planes y programas públicos de investigación científica y técnica o de innovación financiados mediante consignaciones presupuestarias anuales consecuencia de ingresos externos de carácter finalista, de conformidad con lo previsto en la Ley 47/2003. De 26 de noviembre, General Presupuestaria, vinculados a la duración de los correspondientes planes y programas.*

Posteriormente, el Real Decreto-ley 8/2022, de 5 de abril, por el que se adoptan medidas urgentes en el ámbito de la contratación laboral del Sistema Español de Ciencia, Tecnología e Innovación, modifica el ámbito de aplicación de los contratos indefinidos mediante la introducción, en la referida Ley 14/2011, de un nuevo Artículo 23 bis. Contrato de actividades científico-técnicas, que amplía el objeto del contrato indefinido a la realización de actividades vinculadas a líneas de investigación o de servicios técnicos.

Por su parte, conforme a lo dispuesto en la Disposición Adicional Quinta del Real Decreto-ley 32/2021, de 28 de diciembre, las entidades del sector público podrán suscribir contratos de duración determinada para la ejecución del



Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko, bai eta Europar Batasuneko funtsetatik finantzatzeko diren aldi baterako programak gauzatzeko ere.

Horrela, bada, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak kanpoko finantziarioaren bidez ikertzaileak kontratatatzeko arautegia onartu zuen 2022ko martxoaren 31n (2022ko apirilaren 27ko EHAA), eta horren arabera, bi motatakoak izan daitezke ikertzaileen kontratuak: iraupen mugagabedunak eta iraupen jakinekoak.

Horrez gain, kontuan izan behar dira: martxoaren 4ko 40/2008 Dekretua, EHUko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa (martxoaren 18ko EHAA), martxoaren 4ko 41/2008 Dekretua, EHUko irakasleen eta ikertzaileen ordainsariei buruzkoa (martxoaren 17ko EHAA) eta EHUko irakasle-ikertzaileen indarreko lan hitzarmena.

Hori guztia kontuan hartuta, EHUko Errektoreak, emanda dituen eskumen babesean, erabaki du deialdia egitea lehiaketa bidez ikertzaileen kontratuak esleitzeko, bai iraupen mugagabeko kontratuak, bai iraupen jakinekoak (eranskinean daude jasota), deialdi honetako oinarriei jarraikiz:

1. Hautagaien betebeharreko baldintza orokorrak

Lehiaketan onartuak izateko, hautagaiek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- a) Hamasei urte beteta izatea.
- b) Kasuan kasuko irakasleen kidegoko lanari dagozkion eginkizunak betetzea

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, así como para la ejecución de programas de carácter temporal cuya financiación provenga de fondos de la Unión Europea.

En este contexto, la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea aprobó el Reglamento para la contratación de personal investigador con financiación externa de 31 de marzo de 2022 (BOPV de 27 de abril 2022), en virtud del cual se contemplan dos modalidades de contratación del personal investigador: la del personal investigador de carácter indefinido y la del personal investigador de duración determinada.

Asimismo, debe tenerse en cuenta el Decreto 40/2008 de 4 de marzo sobre régimen del personal docente e investigador contratado de la EHU (BOPV 18 de marzo), el Decreto 41/2008 de 4 de marzo sobre retribuciones del PDI contratado por EHU (BOPV de 17 de marzo), así como el Convenio Colectivo del personal docente e investigador de EHU en vigor.

Por todo lo anterior, el Rector de EHU, en ejercicio de las competencias que tiene atribuidas, ha resuelto convocar el correspondiente concurso para la adjudicación de contratos de personal investigador de carácter indefinido y de duración determinada que se detallan en el anexo de esta convocatoria, con sujeción a las bases de la presente convocatoria:

1. Requisitos generales de las personas aspirantes.

Para ser admitida o admitido en el concurso, las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos generales:

- a) Tener cumplidos dieciséis años.
- b) No padecer enfermedad ni estar afectada o afectado por limitación física o psíquica que



eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.

c) Diziplina espedientearen bidez estatuko administrazio orokorreko zerbitzutik edo autonomia, erakunde eta herrietako administrazioetatik aldendua ez izatea, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko haien estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.

2. Hautagaiek betebeharreko baldintza bereziak

Lehiaketan onartuak izateko, hautagaiek ondorengo baldintza bereziak bete behar dituzte:

a) Eskaria behar bezala beteta aurkeztea, deialdi honen eranskinean jasotako ereduari jarraikiz.

b) Lehiaketan eskatutako ikasketa titulu ofizialaren fotokopia aurkeztea, eta lehiaketa bakoitzean eskatutako gainontzeko baldintzena.

Kontraturako eskatzen den titulazioa atzerrian lortu bada, Espainian homologatuta egon beharko da. Homologazio hori Titulu, Baliokidetza eta Homologazioen Azpizuzendaritza Nagusiak egindako egiaztagiriaren bidez egiaztatuko da, eta ez da nahikoa izango homologaziorako eskaria egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea, bat etorrita azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuak zehaztutakoarekin (azaroaren 22ko EBO); edo, egoki denean, kualifikazio profesionalaren aitortpena.

Aipatutakoa gorabehera, baldin eta lehiaketan parte hartzeko doktore titulua beharrezkoa bada, eta titulu hori atzerrian

sea incompatible con el desempeño de las funciones investigadoras correspondientes.

c) No haber sido separada o separado, mediante expediente disciplinario, del servicio de la Administración General del Estado o de las Administraciones Autonómicas, Institucionales o Locales, ni hallarse inhabilitada o inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas. En el caso de no poseer nacionalidad española, no estar sometida o sometido a sanción disciplinaria o condena penal que impida, en su Estado, el acceso a la función pública.

2. Requisitos específicos de las personas aspirantes.

Para ser admitida o admitido en el concurso, las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos específicos:

a) Instancia debidamente formalizada, conforme al modelo que figura en la presente convocatoria.

b) Fotocopia del título académico oficial requerido, así como, en su caso, del resto de los requisitos señalados en la convocatoria de cada contrato.

En el caso de que la titulación exigida para cada uno de los contratos se haya obtenido en el extranjero deberá haberse concedido la correspondiente homologación o equivalencia, que se acreditará mediante credencial expedida por la Subdirección General de Títulos, Convalidaciones y Homologaciones, no siendo suficiente la mera presentación de documentos que acrediten haberla solicitado, de acuerdo con la normativa vigente (Real Decreto 967/2014 de 21 de noviembre, BOE de 22 de noviembre) o, en su caso, el reconocimiento de la cualificación profesional correspondiente.

Sin perjuicio de lo anterior, cuando la titulación exigida para participar en el concurso sea la de Doctorado y dicho título se haya obtenido en el



lortu bada, nahikoa izango da, lehiaketaren parte hartu ahal izateko eta soilik parte hartzeko, tituluaren homologazioa eskatuta izatea EHUⁿ; edozelan ere, kontratua sinatzeko, nahitaezkoa izango da homologazioa lortuta izatea.

Era berean, Europako Batasuna osatzen duten herrietako herritarrek elkarteko kide den beste edozein herritan lortu badute titulua, herri horretan emandako titulua onartzen duen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Agindua erantsi beharko diote tituluari, hau guztia bat etorrita indarreko araudiarekin.

c) NAN edo pasaportearen fotokopia soilak.

d) Eskarian aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuen fotokopia soilak. Ez da inolaz ere jatorrizko agiririk erantsi behar, dokumentazio hori ez baita itzuliko.

e) Lanpostua elebiduna izanik euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztatu behar bada, ondorengo agiriak onartuko dira: Euskarako errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako Erabakian (uztailaren 11ko EHAA) zehaztutakoari jarraituz eskuratutako gaitasun agiria, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluak (2010eko azaroaren 15eko EHAA) edo 47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko denak, zehaztutakoa.

Plaza ez elebidunetara aurkezten diren lehiakideek Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria aurkeztu ahal izango dute, meritutzat hartuko baita (baremazioaren % 11 izango da). Euskara merezimenduen atalean baloratzeko, aldi baterako irakasle-ikertzaileak (irakasle atxikiak eta ordezkoen lan poltsak) kontratatzeko xedez egiten diren hautaketa

extranjero, bastará, a los solos efectos de participación en el concurso, la acreditación de haber solicitado la homologación del título por EHU, siendo en cualquier caso necesario que dicha homologación está concedida en el momento de la firma del contrato.

Asimismo, los títulos obtenidos por nacionales de cualquier estado miembro de la Unión Europea en otros Estados miembros, deberán estar acompañados por la correspondiente Orden del Ministerio de Educación y Ciencia de reconocimiento del título expedido en dichos Estados, de acuerdo con la normativa vigente.

c) Fotocopia simple del DNI o pasaporte.

d) Fotocopia simple de todos aquellos documentos que acrediten los méritos señalados en la convocatoria de cada contrato, no debiendo en ningún caso adjuntarse originales pues tal documentación no será devuelta.

e) En los contratos bilingües tener la capacidad para la docencia en lengua vasca, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en la Resolución del Vicerrector de Euskera de 5 de junio de 2002 (BOPV de 11 de julio), con la aportación de títulos equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (BOPV de 15 de noviembre de 2010) o conforme a lo establecido en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera

Las personas aspirantes a contratos de personal investigador no bilingües podrán acreditar la capacidad para la docencia en lengua vasca a los efectos de su cómputo como mérito por los mismos medios (en un porcentaje del 11 % del baremo). Para la valoración del euskera como mérito, se aplicará la ponderación utilizada en los diferentes procesos de selección para la



prozesuetan ezartzen den haztapena ezarriko da.

f) Lehiakideek frogatu beharko dute lehiaketa bakoitzean parte hartzeko indarreko aurrekontu araudian zehaztutako tasak ordaindu dituztela, eta horretarako jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko dute eskariarekin batera:

- 20,27 euro, lizentziatu, gradudun, arkitekto edo goi mailako ingeniariaren diplomatua, arkitekto teknikoa, ingeniari tekniko, Masterra, Doktoretzaren titulazioa eskatzen den plazetarako.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira eskariak aurkezteko epean zenbateko horiek ordaindu ez dituzten lehiakide guztiak, eta ez da beste eperik zabalduko tasak ordaintzeko.

Dena dela, tasak ordaindu arren, ezinbestekoa da lehiaketan parte hartzeko eskaria ere aurkeztea errektoreari, behar bezala beteta eta epearen barruan.

Eskubideak ordaintzeko ondoko kontu korrontean egin beharko da sarrera edo transferentzia:

KUTXABANK

EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza. Irakasleen lehiaketetako tasak.

Kontu korrontearen zenbakia: ES73 2095 0292 94 3239002233

Zehaztuta ageri beharko dira: izen-abizenak eta kontratuaren identifikazioa.

3. Eskariak aurkezteko modua

Lehiaketan parte hartzeko, eskaria aurkeztu behar da, eta eskariarekin batera deialdian eskatutako agiria guztiak; agiriok EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko

contratación de Personal Docente e Investigador Temporal (profesorado adjunto y bolsas de sustituciones).

f) Justificante, mediante resguardo original que deberá unirse a la solicitud que se presente para participar en el concurso, de haber abonado, por cada uno de los contratos que se soliciten, las tasas establecidas en la normativa presupuestaria vigente:

- 20,27 euros, tratándose de plazas para las que se exija una titulación de Licenciado, Grado, Arquitecto o Ingeniero Superior, Diplomado Universitario, Arquitecto o Ingeniero Técnico, Máster, Doctorado

Serán excluidas todas aquellas personas aspirantes que no hayan abonado las precitadas cantidades dentro del plazo habilitado para la presentación de instancias, no concediéndose plazo alguno adicional para el abono de las mismas.

En ningún caso el abono de las tasas supondrá la sustitución de presentación, en tiempo y forma, de la solicitud de participación.

El pago de los derechos se efectuará mediante ingreso o transferencia bancaria en la siguiente Entidad y cuenta corriente:

KUTXABANK

EHU Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador. Tasas Concursos Profesores.

Número de C/C: ES73 2095 0292 94 3239002233

Especificando el nombre, apellidos y el contrato al que se concursa.

3. Presentación de instancias.

Quienes deseen tomar parte en el concurso formularán la correspondiente solicitud, junto con el resto de la documentación requerida en la convocatoria, remitida al Vicerrectorado de



Errektoreordetzara bidali behar dira horretarako zehaztutako epearen barruan. Eskariak aurkezteko epea abuztuaren 7tik abuztuaren 18ra bitartekoa izango da (biak barne).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2024ko irailaren 11ko Ebazpenean ezarritakoarekin bat etorritik (2024ko urriaren 1eko EHAA, 191. zk.), UPV/EHUko bitarteko elektronikoen funtzionatzeko eta jarduteko arautegia onartzen duena, eskabidea EHUKo erregistro elektronikoen bidez aurkeztu beharko da formatu digitalean ([Registro Elektronikoa](#)), eta "AZALTZEN DU" atalean zehaztu beharko da eskaera Irakasleen eta Ikertzaileen Errektoreordetzaren Deialdi eta Lehiaketan Atalari zuzentzen zaiola.

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikotan.

Lehiaketan parte hartzeko baldintza orokorrak eta baldintza bereziak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik eduki beharko dira beteta. Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, ez da beste eperik zabalduko merezimendu gehiago edo eskaeran adierazitakoen agiriak aurkezteko.

Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak txostenak eskatu ahal izango ditu baldintzak bete egiten direla egiaztatzeko.

Personal Docente e Investigador de EHU, dentro del plazo de presentación de instancias. El plazo de presentación de solicitudes comprende del día 07 de agosto al 18 de agosto de 2026.

De conformidad con lo establecido en el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y con la Resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 11 de septiembre de 2024 (BOPV Nº 191, de 1 de octubre de 2024) por la que se aprueba el Reglamento de funcionamiento y actuación por medios electrónicos de la UPV/EHU, la solicitud deberá presentarse en formato digital a través del Registro Electrónico de EHU ([Registro Electrónico](#)), especificando en el EXPONE que la solicitud se dirige a la Sección de Convocatorias y Concursos del Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador.

Asimismo, podrá presentarse en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público.

La concurrencia de los requisitos generales, así como de los requisitos específicos para participar en el concurso, deberán estar referidas siempre a la fecha de expiración del plazo fijado para solicitar la participación en el concurso. Una vez cerrado el plazo de instancias, no se volverá a abrir plazo alguno para presentar méritos o justificar los expuestos.

El Vicerrectorado de PDI podrá recabar los informes que estime oportunos para la verificación de los distintos requisitos.

4. 4.- Lehiakideak onartzea

Eskariak aurkezteko epea behin bukatuta, unibertsitateak web orrian argitaratuko du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, eta hori izango da jakinarazpena egiteko era. Lehiakideek hiru eguneko epea izango dute, zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, akatsak zuzentzeko eta zerrendaren kontra egiteko. Epe hori behin igarota, zerrenda behin betikoa izango da eta haren kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio errektoreari, zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien kasuko epaitegian.

Hautaketa prozesuaren uneren batean administrazioak egiaztatuko balu lehiakideren batek ez duela betetzen lehiaketan zehaztutako baldintzaren bat, lehiakideari bost eguneko epea emango dio falta den agiria aurkezteko. Agiria aurkeztu ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da behin betiko.

5. Kontratazioa

Lehiaketa kasuan kasuko epaimahaiak ebatziko du (hiru titular eta hiru ordezkio izango ditu) eta Kanpoko finantziazioaren bidez EHUK ikertzaileak kontratatzeke arautegiari jarraituz jardungo du (2022ko apirilaren 27ko EHAA). Epaimahaiak proposamena egingo du onartutako irizpideen arabera osatutakoa, eta ikertzaileen kontratuak egiteko proposatutako pertsonak adieraziko ditu, puntuazioaren arabera ordenatuak, eta ezingo dute eskainitako plazak baino pertsona gehiago proposatu. Hala ere,

4. Admisión de personas aspirantes

Finalizado el plazo de presentación de instancias, la Universidad hará pública en la página web la lista provisional de personas admitidas y excluidas, que servirá de notificación a las personas interesadas, abriéndose un plazo de tres días, a partir del siguiente a la fecha de publicación de dicha lista, para subsanación de errores, así como para presentar reclamación contra la misma, transcurrido el cual el listado se elevará a definitivo, cabiendo contra este último recurso de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente a su publicación ante la Rectora o Rector o recurso contencioso- administrativo, en el plazo de dos meses, ante los Juzgados de lo Contencioso- Administrativo correspondiente.

Si en cualquier momento del procedimiento selectivo por la Administración convocante se comprobase que alguna persona aspirante carece de alguno de los requisitos exigidos para concurrir, se le concederán 5 días para aportar la pertinente acreditación documental. De no hacerlo así, quedará definitivamente excluido.

5. Contratación

El concurso será juzgado por la correspondiente Comisión Evaluadora, que estará compuesta por tres personas titulares y otras tantas suplentes, en los términos establecidos en el Reglamento para la contratación de personal investigador con financiación externa por EHU (BOPV de 27 de abril de 2022). La Comisión Evaluadora elaborará una propuesta conforme al baremo de criterios aprobado, en la que indicará, por orden de puntuación, las personas propuestas para formalizar el contrato, no pudiendo proponer más personas concursantes que

ordezkoak proposatu ahal izango ditu, hasieran proposatutako pertsonak kontratuari uko egiten dioten kasuetarako edo kontratua amaitu baino lehen kontratua deuseztatzen duten kasuetarako.

Epaimahaiaren jarduna bat etorri beharko da, beti, urriaren leko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak zehaztutakoarekin eta urriaren leko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, zehaztutakoarekin.

Kontratazio proposamena unibertsitatearen webgunean argitaratuko da, eta proposatutako pertsonari jakinaraziko zaio. Pertsona horrek hiru eguneko epea izango du, jakinarazpena egiten denetik, kontratua sinatzeko. Kontratuari uko eginez gero edo aipatutako epean kontratua sinatzen ez badu, epaimahaiak osatutako ordezkoren zerrendaren arabera hala dagokion pertsonari deituko zaio.

Salbuespenezko egoeretan, aurreko paragrafoan aipatutako epea luzatu ahal izango da: zehaztutako hiru eguneko epean egiaztatu beharko da salbuespen egoera eta Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak ebatziko du.

Epaimahaiak kontratuak esleitzeko egindako proposamenen kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio EHUko errektoreari hilabeteko epean, proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Dena dela, horrek ez du eragotziko beste edozein motatako errekurtsorik jartzea.

Kontratu mugagabeen iraupenari dagokionez, proiektuaren jarraitutasunari, kontratatutako pertsona esleitzen zaion ikerketa lerroari edo zerbitzu zientifiko-teknikoari eta kanpoko finantzaketa nahikoari lotuta egongo da.

contratos convocados, aunque se podrán proponer suplentes para el caso de que las personas inicialmente propuestas renuncien al contrato o lo rescindan antes de la finalización del contrato de que se trate.

En todo momento su actuación se ajustará a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

La propuesta de contratación se publicará en la página web de la Universidad y se notificará a la persona propuesta, que dispondrá de un plazo de tres días a partir de la notificación para formalizar el correspondiente contrato. En el supuesto de no aceptar la propuesta de contratación o no formalizar el contrato en el referido plazo, se procederá al llamamiento de la siguiente persona que figure en la prelación de suplentes que la Comisión Evaluadora haya, en su caso, establecido.

En atención a circunstancias excepcionales, que habrá que acreditar en los referidos tres días y cuya concurrencia corresponde apreciar al Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador, el plazo al que se refiere el apartado anterior podrá ser prorrogado.

Contra las propuestas de adjudicación de contratos emanadas de las Comisiones de Evaluación, las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante la Rectora o el Rector de EHU en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación, sin perjuicio de que puedan ejercitar, en su caso, cualquier otro que estimen procedente.

En los contratos de carácter indefinido, la vigencia del contrato estará vinculada a la existencia de suficiente financiación externa en el Departamento o Instituto y a la continuidad del proyecto, la línea de investigación o servicio científico-técnico.



6. Azken arauak

Deialdi honi buruzko informazioa EHUko Lehiaketa Atalean emango da, honako helbide honetan: Errektoregoko erainika, 1. solairua, Leioako Campusa (Bizkaia).

Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentuak hiru hilabetez izango dituzte gordeta sailetan, epaimahaiak proposamena egiten duen egunetik kontatzen hasita, baina proposamen horren kontrako errekurtsorik aurkezten bada, dokumentuak gordeta izan beharko dira ebazpen irmoa ematen den arte.

Beste urtebete igarota interesatuak ez badira aipatutako dokumentuak hartzera joan, unibertsitateak suntsitu egin ahal izango ditu.

Deialdi honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoa administrazioarekiko auzien kasuan kasuko epaitegian, bi hilabeteko epean. Bai kasu batean, bai bestean epea lehiaketa argitaratu den egunaren biharamunean hasiko da kontatzen.

Leioan, 2026ko abuztuaren 06an

6. Normas finales

La información referente a esta convocatoria, será facilitada en la Sección de Concursos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Edificio Rectorado, primera planta, Campus de Leioa (Bizkaia).

Los documentos que acompañen a la solicitud permanecerán depositados en los Departamentos durante un plazo de tres meses desde la fecha de la propuesta de la Comisión, salvo que se interponga algún recurso, en cuyo caso el depósito continuará hasta que haya resolución firme.

Transcurrido un año adicional sin que las interesadas y los interesados hubieran retirado dicha documentación, la Universidad podrá disponer su destrucción.

Contra la presente convocatoria cabe la interposición de recurso potestativo de reposición ante el Sr. Vicerrector de Personal Docente e Investigador, en el plazo de un mes desde el día siguiente a su publicación, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado Contencioso Administrativo correspondiente, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación.

En Leioa, a 06 de agosto de 2026

ERREKTOREA/EL RECTOR

Izenpea eskuordetuta (Errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakia, 2025/02/19ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen errektoreordea / P.D. de firma (Resolución del Rector de 30 de enero de 2025, BOPV 19/02/2025), el Vicerrector de Personal Docente e Investigador”

Izptua.: / Fdo.: Efren Areskurrinaga Mirandona